

Merkatari elkarteko arduradun agurgarria:

Badakizu udalerrri euskalduna dela gurea, eta eragile asko ari direla ahalegin handia egiten euskara normalizatzeko helburuarekin. Herriko establezimenduak giltzarri dira horretan: herriko bizitzan eragin handia dute, eta hizkuntza dute bezeroekin harremanetan jartzeko tresna. Horregatik, inportantzia handia ematen diogu herriko establezimenduetan euskararen erabilera areagotzeari.

Jakin badakigu aldaketa teknikoak egin beharrean daudela establezimendu ugarian, ogasunak beharrezko egin duelako TicketBAI softwarea erabiltzea; horren bidez, establezimenduak egiten dituen fakturak zuzenean igorriko dira ogasunera. Hainbat enpresa informatikok prestatu dituzte TicketBAIrekin uztartzeko balio duten aplikazio informatikoak, eta establezimenduetan jartzen ari dira pixkanaka, datorren urtetik aurrera derrigorrezkoa izango baita TicketBAI erabiltzea.

Kontua da ogasunek baimendutako aplikazio gehienak ez daudela euskaraz. Hori atzerapauso handia da gurearen gisako udalerrientzat. Azken urteetan urratsak egin ditugu merkataritzako hizkuntza paisaia euskalduntzeko, ariguneen bidez hizkuntza ohiturak aldatzeko, eta, finean, herritarrei zerbitzu hobea emateko. TicketBAI proiektua beste pauso bat emateko aukera da, euskarazko fakturak egin ahal izateko, baina, horretarako, aplikazio informatiko egokia behar da.

Establezimenduetan mezu hau zabaltzeko eskatu nahi dizugu: **TicketBAI sistema ezartzeko egokitzapenetan, aintzat har dezatela udalerrri euskaldun bateko establezimendua dela, bezero gehienak euskaldunak direla, eta hizkuntzaren normalizazioan pauso handia dela fakturak euskaraz egitea. Euskaraz erabil daitezkeen aplikazioak instalatzeko mezua hedatu nahi dugu.**

Orain arte bezala, gogoratu establezimenduek eskura dutela UEMAren zerbitzua: euskarazko kartelak egiteko, itzulpenekin laguntzeko, aholkularitza emateko... Establezimenduak eremu garrantzitsua dira herriko bizitzan, eta euskararen aldeko pausoetan bidelagun izan nahi zaitugu.

[UDALAREN LOGOA]



Edozein dudarekin, jarri harremanetan udalarekin (XXXXXXXXXX telefono zenbakia) edo UEMArekin (XXXXXX).

XXXXXXen, 2021eko apirilaren 23an



XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
XXXXXXXXXeko alkatea

Iraitz Lazkano Garitaonaindia
UEMAko lehendakaria